

Politiko izan beharra ta politikaren bi mailak

Laburki esanda: ezkerren obligazioa politikoa izatea da. Ta politikoa izatea, teoria politikoa batzuk edukitzea baino gehiago da.

Gure artean "politika" hitza lu-zaraoan egon da errezeloz edo destainuz ikusita. Zeinek pentsatuko luke, Rikardo Arregi zenak 1966-an oraindik prejudizio horiek bururatu behar zituenik? "Gaur egun —idazten zuen Z. ARGIAN— hitz hau izan daitekeen prestijiorik gutienekoa da. Gizon gehienek pentsamenduan, politika hitza ta zinkieria hitza berdinak dira, esanahi berdina dute. Jendea despolitikatuta dagoela entzutea ere ez da harriztekoa izaten" (Ik. Herriaren lekuko, JAKIN 1972, or. 208-211).

Gaur, ostera, atzo desohaturiko politikak ohore guztiak ospatzen ditu, politikoa izateak aipuz jasuten du bat, eta "politiko" garelakoa gabilta denok. Kontzientzia batik-bat irauli dugula, esango litzake: 180 graduko iraultura eragin dugula.

Baina ez gaitzen axalarekin eta itxurarekin engaina: politika hitza errehabilitatzea ez da politikaren errealditatea baliaberritzea. Eta hau erdizka baizik ez dugula lortu, esango nuke. Beste erdiari dago-kionean, lehenago haina higuin ta mesfida diogu. Hemen, izan ere, kondizioek uzten duten zenbait politikatan abiatzen dena, "errebi-xionista" edo "erreformista alu bat" besterik ez dugu, "sistimaren barruan" mogitzen den nano malapartatu bat, eta antzeko dotoreziak. Hemen ez dago kontuak atara ta hurbileko xederik eta ekin-biderik proposatzen ausartzerik, edozeinen burla gaineratu gabe. (Benetan ausarta izan beharko bait litzake, hortan abiatzeko). Beti helburu radikal eta osoak aldarrikatu behar dira. Ez dago neurritsu izaterik. Ez dago konpromisotan eskuak zikintzerik. Ez dago, dauden errealdadeetatik ahal dena irabazten saiatzerik. Legalidadea aprobetxatzerik. "Erreformak" lortzerik. Hemen, norbait izateko, zeharoko burrukan aritu behar da. "Terrorista" izan behar da. Eta kultur-arloan bagabiltza, kultur-terrorista: izugarritzko galanteriak bota behar dira alde guzietara, edozer gauza esan, zenbait-eta izugarriagoa ta hobe, dena puskatu behar da, ezer ez errespetatu. Ez dio inporta, esaten dena zozoke-riak besterik ez bada ere: inportantea jendea terrorizatzea da. Esitoa edukitzeko bidea ere horixe da.

—oOo—

Gure kultura guzia "kultura burges, desuskaldun, errepresibo, utilitario eta kontsumista" hutsa da (HERRI GAZTEDI). "Guk jaso

dugun euskara, burges ideologia baten sostengua da" ta "gure literaturaren kondaira euskal burgesiarenean ideologia atzerakoiaeren historia da" (Haranburu-Altuna). Horrela ez dago haiek "desarrollatzen" lan egin beharrik. Zerbait zeharo berria sortu behar genuke. Tradizio kultural ta literarioei atxikitzea ta haiek desarrollatzea, guk baino historia desburbesagoak dituzten herrietzat utziko dugu: txinarrantzat eta errosoentzat, adibidez. Guretat, aldiz, erabateko oposizioaren politika iraultzagilea besterik ez da kabitzin: gure etsaien kontra, ta geure buruen kontra ere bai. Hots, agiriko bitzitan ez dago guretat zer egirik, absentsismoa erakutsi espada. Eta ni bildur naiz, politikabide "radikalen" eskusibismo hori, "erreformismoen" gorroto hori, "iraultza-mania" hori, asko ta askotan, politikaren higuina ta politikatik (heroisismoa!) eskapismoa besterik ba ete den.

Alegia, radikalismo hori ondo iruditzen zait: baina egiazkoa denean, ez itxura hutsa. Ez jolasa. Eta kultur-arloan, radikalismo hori ezta egiazkoa denean ere, ez zait ondo iruditzen: orduan vandalismo hutsa da-ta.

—oOo—

Gu politika bi mailatan eraman beharrean gaude oraindik. Ezkutu eta agirian. (Eta kultur-politika batez ere agirian bakarrik eraman genezake). Biak ditugu premia. Inola ere ez da bataren premia bestearen kondenera edo gutiespena daramana. Ekintza politikotzat "iraultzaren" maila radikala bakarrik baitesten baldin bada, ez da iadanik denok han ari gintzekelako, iadanik hura besterik behar ez delako, ezta oraindikoz denok han sartzeko gauza garelako ere, ta honez gero hura bakarrik aski genukelako ere ez. Agiriko mailari buruz bai, G. Trintxerpek esandakoak gehiegizkoak ez baino egirik apalenak dira. Esandako dena ta askoz gehiago esan zezakeen.

Ezkerren obligazioa, ba: 1. ideologia/teoria ta ekintza bereztea da, 2. ideologia ta teoria bereztea ta teoria sortzea da, 3. politikaren bi mailak bereztea ta burruka maila bietan organizatzea da: maila bakoitzari dagozkion legeen arabera, ta biak elkar-lotuz. Eta, hortarako, "politikaren" kontrako prejudizio zaharrak eta hauk estaltzera edo justifikatzera etorri diren ideologia amorratu berriak birrindu beharra dago: hori ere ezkerren obligazioa da.

Joxe AZURMENDI

ALDAKORRAK

Gure egiturak beti izan dira aldatuak, baina esan dezakegu aldatuak oraindik oraindik, dirala.

Nazioarteko diren egiturak astu ziran; lehendabiziz eta aldi berean, auste orregaz batera, asi ziran lehengaien salneurriak gehitzen, igotzen.

Ikusi besterik ez dago lauki ontako zerbaitik.

Igikera orren gaitzak. Igotze orren ondoreak inflazio berezi bat sortzen dute, kostearen inflazioa izenez ezagutzen dana.

Gure eskualde industrializatuak, eskualde erroslea izanik, lehengaien azokan (petrolio, kautxu, kotoi, kakao, etab.), diru gehiago eralgi behar du lehengai bardiak erosteko.

Irabazien gutitzea, nazio indus-

trializatu guztietan gertatzen dan arazoa da. Agintariak, arazo au menderatu ezinik dabilta.

Orregatik, aurretik, nazioarteko arremanan aldakuntza aundi bat ikusiko dogu.

Aldakuntza aundi baten aurrean gaudela, ezin da ukatu.

Gizartearen onerako? Baliteke.

LEHENGAI BEHARREZKOEN SALNEURRIAK

Lehengai	Azoka	Neurkai	Diru-alea	1972 Urtarrila	1972 Abendua	1973 Jorrraila	1974 Epailla	1974 Jorrraila
Garia	Chicago	Bushel	\$	1,64	2,64	2,42	4,31	3,85
Artoa	Chicago	Bushel	\$	1,20	1,54	1,65	2,78	2,77
Garagarra	Winnipeg	Bushel	\$	1,08	1,41	1,58	2,75	2,75
Sojaolioa	Rotterdam	100 k.	Fl.	253	230	98,50	183	195
Kopra	London	T. luzea	\$	157	177	292	820	740
Linolioa	Rotterdam	T.	\$	198	240	289	1.120	1.125
Azukrea	New York	Libera	\$	0,08	0,09	0,09	0,18	0,23
Kafea	New York	Libera	\$	0,45	0,56	0,65	0,70	—
Kakao	New York	Libera	\$	0,26	0,37	0,55	1,03	1,21
Kotolia	Liverpool	Libera	\$	0,40	0,38	6,47	0,71	0,70
Artilla	Bradford	Kiloa	Pen. £	98	223	270	242	223
Jutea	London	T. luzea	£	—	143,50	149	155	164
Sisala	London	T.	£	80	130	178	1.060	1.060
Larrua	New York	Libera	\$	0,17	0,37	0,30	0,24	0,25
Kautxua	London	Kiloa	Pen. £	13,6	20,35	24	36,5	35,5
Kobrea	London	T.	£	419,50	450	628	1.322	1.350
Ziraudia	London	T.	£	151,5	159,5	1.716	3.590	4.000
Zinka	London	T.	£	104,25	130,25	162	304	300
Beruna	London	T.	£	151,5	159,5	220	714	801

S. LARREA

BIZKAIKO BANKA - ETXEARI ESKA LASAI

GASOLINA - TXARTELAK

Eska gasolina-txartelak Oiek eskuan badituzu, ez duzu sosik ordaindu beharrik. Bota gasolina eta eman txartel auetakoak gasolintegian. Bizkaiko Banka-etxeak jasoko ditu zuk gasolintegietan utzitako txartelak. Banka-etxeak ezarriko du zure liburuan zure izeneko zorra. Au da gasolina ordaintzeko era berria. Beraz lasai eska dezaiozuke Bizkaiko banka-etxeari.

BANCO DE VIZCAYA
siempre cerca de usted

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkifia: 41 20 65

DONOSTIA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, Indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guztiak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI